

Ohiko galderen dokumentua

1. Zer lortu nahi da Merkatuaren Aurretiazko Kontsulta batekin?

Merkatuaren Aurretiazko Kontsultaren (MAK) helburua da, planteatutako erronkei erantzuteko proposamen berritzaileak aurkez daitezela, egun merkatuan dauden teknologien prestazioak gaindituko dituzten teknologiak erabilia.

Proposamen horiek balioko dute merkatuaren ahalmena ebaluatzeko eta berrikuntza dakarten zehaztaperen funtzional eta teknikoak definitzeko, gerora balizko berrikuntzaren erosketara publikoaren (BEP) bidez irisgarri izan daitezkeenak.

Era honetako prozeduren helburua ez da eskaintzak jasotzea, EKPe estali gabe dituen beharrei erantzuteko konponbideak jasotzea baizik.

2. Espainian egoitza sozialik ez duten parte-hartzaileek nola hartuko dut parte MAKeen?

MAK deialdia pertsona fisiko edo juridiko guztientzat dago zabalik eta bere erantzuna ingelesez, euskaraz edo espainolez aurkez dezakete.

3. Espainian egoitza sozialik ez duten parte-hartzaileek nola hartuko dut parte etorkizuneko lizitazioan?

Balizko etorkizuneko lizitaziorako, espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetakoa herritarrak diren enpresaburuek kontratatzeko duten gaitasuna egiaztatzeke, errotuta dauden estatuko legediaren arabera bidezkoak diren erregistroetako inskripzioaren bidez egiaztatuko dute, edo zinpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztuta, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, aplikatzekoak diren Erkidegoko xedapenekin eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren I. eranskinean jasotako Erregistroen zerrendarekin bat etorri.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoa edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa pertsona fisiko edo juridikoek enpresaren egoitzako Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Bulego Kontsularrak emandako txostenaren bidez egiaztatuko dute kontratatzeke gaitasuna. Txosten horretan jasota egon beharko du, aldeztatik enpresak egiaztatuta, tokiko erregistro profesional, komertzial edo antzekoan inskribatuta daudela, edo, halakorik ezean, kontratuaren xede diren jardueren eremuan tokiko merkataritzan ohikotasunez jarduten dutela.

Horrez gain, elkarrekikotasun-txosten bat ere jaso beharko du (Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egindakoa), erregulazio harmonizatuko kontratuak ez badira behintzat. Kasu horretan, horren orde, txosten bat egingo du Ekonomia Ministerioi Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiak, estatu horrek Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duela dioena.

Nolanahi ere, Espainiako enpresaburuei eskatzen zaien moduan egiaztatu beharko dute kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, kalterik egin gabe kasuan kasuko erregistroetako inskripzioan xedatutakoari.

4. MAKaren erantzunari erantsi al dakioke dokumentu gehigarririk?

Proposamenek egokitzat jotzen duten behar besteko dokumentazio osagarria eraman dezakete. Dokumentazio osagarri hori konfidentzial izenda daiteke, dokumentu horietan zehatz-mehatz azalduta zein atali eragiten dien konfidentzialtasun deklarazioak.

5. Ba al dago MAKarentzako proposamena beste erakunde batekin elkarlanean aurkeztea?

Bai, norbanako gisa zein beste erakunde batzuekin elkarlanean aurkez daitezke kontsultari erantzuteko proposamenak. Parte-hartzaileen erantzunak taldean aurkeztetikotan, galde-sorta bakarra osatuko da. Galde-sorta horretan parte hartuko duten erakunde guztiak identifikatu beharko dira.

6. Fundazioek edo erakunde publikoek hartu al dezakete parte lizitazioan (zentro teknologikoak, unibertsitateak, etab.)?

Bai, baina honako puntu hauek kontuan hartuta: Etorkizuneko balizko lizitaziora aurkeztu ahal izango dira pertsona fisiko edo juridikoak, espainiarrak edo atzerritarrak, norbanako gisa edo Aldi baterako enpresa-elkarte batean (ABEE). Enpresa horiek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute eta ezin izango dute eduki SPKLren 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekurik.

Pertsona juridikoak beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedaren edo jarduera-eremuaren barruan sartzen diren kontratuen adjudikaziodun baino ezin izango dira izan.

7. EKPe emango al dit MAKarentzat egin dudan proposamenaren inguruko balorazioa?

EKPe ez du MAKarentzat egindako proposamenen baloraziorik emango, kontsultaren helburua ez baita eskaintzak baloratzea eta haztatzea, beste parte-hartzaileek aurkeztutako eskaintzekin alderatuta. Jaso dela dioen mezu elektronikoa bakarrik bidaliko zaio proposamena egin duenari.

8. Ba al dago inolako murrizketarik ikuspegi teknologikotik?

Ez. Ikuspegia beti da irekia, hautatutako ERRONKA teknologikoan ezarritako baldintzak betetzen badira. Argitaratutako ERRONKarentzako egokientzat jotzen den ikuspegi teknologikoa aurkeztu ahal izango da (ERRONKAREN deskribapena “Merkatuaren Aurretiazko Kontsulta” dokumentuaren 4.2 atalean dator).

9. Prozeduraren baitan, aurreikusi ahal da eskatzaileekin debate teknikoa egiteko informazio-bilerarik?

MAKari buruzko txostena egin aurretik, MAKeen planteatutako proposamenak xeheago ezagutzeko enpresekin bilerak egiteko aukera planteatu da.

10. Posible al da Aurretiazko Kontsultan parte EZ hartzea baina BAI aurreikusten den etorkizuneko lizitazioan?

Bai.

11. Aurkez al dezaket patentatuta dagoen konponbide bat?

EKPi edo etorkizuneko proiektuak garatzen lankide izango duen beste edozein enpresari proposamena aske erabiltzea galaraziko dioten merkataritzako patenterik, copyrighttik edo egile- edo enpresa-eskubiderik gabeko proposamenak izan beharko dute. Hau da, patentatutako konponbideak aurkeztu ahal izango dira, baldin eta adjudikazioa eskuratuz gero, parte-hartzaileek proiektua behar bezala gauzatzeko beharrezko eskubideak badituzte.

Nolanahi ere, etorkizuneko kontratazio-prozesuetan EKPeK zehaztapen teknikoak definitzeko, patentea izateak mugatuko ez dituen baldintza funtzionalak hartuko ditu kontuan, betiere lehiaren printzipioak errespetatuta.

12. Parte-hartzaile batek bere proposamenean konponbide patentatuak edo markak aipatu ezin baditu, hobe al da konponbidea horien funtzionaltasunen azalpen gisa aurkeztea, inolako markarik erabili gabe?

MAKaren ondorioak ondorengo lizitazioa idazteko oinarria izango dira, baina MAKa egiteak ezingo du lehia murriztu. Lizitazioan markak edo patentea duten produktu zehatz batzuk sartzek lehia murriz dezake, horregatik eskatzen du MAKaren ebazpenak proposamenean ez sartzeko.

13. Non argitaratuko da erronka teknologikoen definizioari dagokionez egiten diren aurrerapenei buruzko informazioa?

HOBE/SPRILUREk dei daitezkeen balizko kontratazio-prozeduretako parte-hartzaileen artean gardentasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko, erronka teknologiko bakoitzaren definizioan egindako aurrerapenei buruzko informazioa SPRIren webgunean argitaratuko du. (<https://www.spri.eus/berrikuntza-komunikazioa/ontzigintza-jasangarriaren-erronka-ekpboat-proiektua/>).

Erronka teknologikoak ontzen doazen heinean, IHOBE-SPRILUREko eta SPRIko taldeen barne-lanarekin, eta MAKEan bildutako eta interesgarritzat jotzen diren konponbide berritzaileen proposamenean oinarrituta, informazio berria SPRIren webgunean argitaratuko da, baina ez ditu inola ere esplizituki jasoko konponbide horiek.

14. Nora igorriko ditut inprimakiak?

Inprimakiak dagokion EKP erronkaren baitan egongo dira eskuragarri, SPRIren webgunean, “Inprimakiak” atalean.

15. Zein da konponbide-proposamenak entregatzeko epea?

Proposamenak entregatzeko epea bat hilabetekoa da, kontratatzailearen profilean eta SPRIren webgunean argitaratzen denetik aurrera.

MAKaren erantzunetan operadore ekonomikoek konponbide-proposamenak soilik igorriko dituzte (ikus inprimaki-eredua), inolaz ere ez eskaintzen baldintzak.

16. Egingo al da informazioa emateko jardunaldirik edo ekitaldirik?

Bai. MAKa indarrean dagoen bitartean informazioa emateko ekitaldi bat egingo da. Ekitaldi horretan abiapuntuko egoera eta proiektuaren helburu eta behar zehatzak azalduko dira, eta zalantzak eta galderak argitzeko aukera emango zaie prozesuan parte hartzeko interesa duten enpresa, erakunde eta entitateei. (webgunea).

17. Loteslea al da proposamena egitea etorkizuneko kontratazio prozesu batekin?

Balitzko etorkizuneko kontratazio-prozedurak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaintza guztietara irekita egongo dira, MAKari lotuta egon zein ez. MAKEan proposamenak entregatzeak ez die pizgarririk edo abantailarik ekarriko enpresa parte-hartzaileei etorkizuneko kontratuak adjudikatzerakoan, eta ez da adjudikazio-irizpide gisa edo aldeko balio haztagarri gisa aitortuko.

18. Zer irizpide dago konfidentzialtasunari dagokionez?

Parte-hartzaileek ematen duten informazioan berriazko baimena txertatuko dute EKPe bere parte-hartzea eta 1. FAQn aurreikusitako helburuarekin bakarrik, MAKEan planteatutako gaiak eta/edo irtenbideak zabaldu ahal izateko.

Nolanahi ere, EKPe ezin izango du zabaldu parte-hartzaileek eman duten informazioan konfidentzialtzat izendatu eta arrazoitu duten informazio teknikoa edo komertziala.

Parte-hartzaileek identifikatu beharko dute konfidentzialtzat jotzen dituzten dokumentazioa edo informazio tekniko edo komertziala. Ez da onartuko adierazpen generikoa egitea edo dokumentu guztiak edo informazio guztia konfidentziala dela adieraztea.

Parte-hartzaileek konfidentzialtzat izendatu ahal izango dituzte emandako dokumentu batzuk edo, hala badagokio, dokumentu horien atal zehatzen bat. Puntu honek argi eta garbi (nola edo hala, edo marjinan) adierazita egon beharko du izendapen hori duen dokumentuan bertan.

19. Nola egon naiteke MAKari eta etorkizuneko lizitazioari buruz informatuta?

Interesa daukazula adierazita, SPRIren webgunean bidez.